

Fatimako Ama Birjina erromesak Ayalde ikastetxea bisitatu zuen

Begoñatik hasi zen
prozesioarekin bat egin zuten
Bilboko beste kofradiek.

2004 Urr 21

Fatimako Ama Birjina Erromesaren
irudia 1960an egon zen Bilbon
lehendabiziko aldiz eta orain
Bizkaira itzuli da, Ayaldeko
ikastetxera bisitatzer. Han egon zen
pasa den irailaren 29tik urriaren

1era, errosario hilabeteko lehenengo eguna arte hain zuzen ere.

Iritsi zenetik, gurtzeko moduan egon zen eta handik pasatu ziren ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak, langileak eta ikastetxeko hainbat familia.

Goizaldean ikastetxe osoaren aldetik ongi etorria egon zen, gurasoak barne, Meza Santua ospatu zen gero. Ondoren, Aldreko Sakramentua ikusgai zegoela, ikastetxeko kurtsoak pasatu ziren Ama Birjina bisitatzerara edota errosario santua otoitz egitera.

Arratsaldean Espainiako Munduko Zabalkundeko nagusia den Carlos Lumbreras jaunak familiei hitzaldi bat eman zien. Iluntzean ere zuzi prozesioa eratu zen eta ikasle ohientzat deialdi bat antolatu zen Ama Birjinarekin otoitz egiteko eta kristau bizitzako lekukotasuna partitzeko.

Urriaren 30eko arratsaldean, ikastetxeko jarraigo batek Ama

Birjina lagundu zuen Begoñako
Basilikaraino non Bilboko
Apezpikuak, Ricardo Blazquez
jaunak, ospatu zuen Meza Nagusia.
Begoñako Kofradiak prozesioa
antolatu zuen eta hara elkartu ziren
Bilboko kofradiak eta Erljio
Instituzioak.

Ekitaldiak ohorezko aurreku
batekin Begoñako Gogo Jardunen
Etxearen ondoan, gero segizioa hasi
eta txistularien soinuaz lagunduta
sartu ziren Basilikan. Amaieran,
irudia babestu zuten Mallotako
Gurutz Santuko parrokiara heldu
arte, zuzi prozesioa ere egitaratu zen
Etxeberria parkearen eta
“Polvorín”izeneko bidearen zehar.
Arin, arin eraman zuten 50 kg pisuko
irudia. Parrokia honetan gau egin
zuen fededunek lagunduta.
Biharamunean, Ayaldera bueltatu
zen ikastetxeko lagunei eta gure
herriari agur egiteko.

1967an Pablo VI Aita Santuak
Fatimako Ama Birjina erromesa
bedeinkatu zuen. Imajina hau
bidaiatzen da etengabe munduan
zehar. Tailu honen helburua
Ebanjelizazio berriaren zabalkunde
lanean diharduten Apezpiku eta
erretoreekin lan egitea da, Juan
Pablo II.ren etengabeko deialdiei
jarraituz, bereziki; erabiltzen da
baita ere, katolikoek parroketako
eliz bizitzan parte har dezaten.

Eli Bengoetxea

Ayaldeko zuzendari ordea

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/fatimako-
ama-birjina-erromesak-ayalde-
ikastetxea-bisitatu-zuen/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/fatimako-ama-birjina-erromesak-ayalde-ikastetxea-bisitatu-zuen/) (2025 Abu 6)